



LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA  
Etxebizitza Sailburuordetza  
Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES  
Viceconsejería de Vivienda  
Dirección de Vivienda, Suelo y  
Arquitectura

**INFORMAZIO-OHARRA, ETXEBIZITZA, LURZORU  
ETA ARKITEKTURA ZUZENDARITZARENA,  
2020KO IRISGARRITASUN DIRULAGUNTZEN  
DEIALDIAREN BIDEZ DIRUZ LAGUNDUTAKO  
IGOGAILUEN KASUAN INFORMAZIO-PLAKA BAT  
INSTALATZEKO BETEBEHARRARI BURUZKOA.**

**NOTA INFORMATIVA DE LA DIRECCION DE  
VIVIENDA, SUELO Y ARQUITECTURA EN  
RELACION CON LA OBLIGACIÓN DE INSTALAR  
UNA PLACA INFORMATIVA EN LOS CASOS DE  
ASCENSORES SUBVENCIONADOS MEDIANTE  
LA CONVOCATORIA DE ACCESIBILIDAD 2020.**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez, 2020ko ekitalditako arautu eta deitu egin ziren udalenzako, tokiko organismo autonomoentzako, toki-erakunde txiki-erakunde eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obra egiteko xedez (2020-09-01eko EHAA).

La Orden de 27 de julio de 2020, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, regula y convoca para el ejercicio 2020, las subvenciones a ayuntamientos, organismos autónomos locales y entidades locales menores, y entidades privadas con fines sociales de utilidad pública, para la elaboración o actualización de planes de accesibilidad y para la ejecución de obras de mejora que garanticen la accesibilidad en el entorno urbano y de las edificaciones (BOPV 1-09-2020).

Etxebizitzako sailburuordearen 2020ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez aipatutako deialdia ebatzi zen.

Mediante Resolución de fecha 30 de diciembre de 2020, del Viceconsejero de Vivienda se resuelve la citada convocatoria.

Aipatutako deialdiaren aginduak, hain zuzen 15. artikuluko f) atalean -Erakunde onuradunaren betebeharrak eta dirulaguntzen beste betekizun batzuk- honako hau xedatzen du: *"Agindu honen babespean egindako igogailuetan, barnekoak zein hirikoak izan, metalezko plaka bat instalatuko da, Din A5 tamainakoa gutxienez, eta bertan adieraziko da jarduera laguntza-araubide honetarako eskumena duen sailak diruz lagundu duela, agindu honen II. eranskinean jasotako ereduaren arabera".*

La Orden de la citada convocatoria, en su Artículo 15, apartado f) -obligaciones de la entidad beneficiaria y otros requisitos de las subvenciones- determina lo siguiente: *"En los ascensores ejecutados al amparo de la presente Orden, sean interiores o urbanos, se instalará una placa metálica de tamaño mínimo Din A5 en la que se recoja que la actuación ha sido subvencionada por el Departamento competente para este régimen de ayudas según modelo contemplado en el Anexo II de la presente Orden".*

2021eko urtarrilaren 29an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Dekretu horrek Etxebizitza Sailburuordetzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzari esleitzen dio irisgarritasuna sustatzeko eskumena.

Con fecha 29 de enero de 2021 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el Decreto 11/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes. Dicho decreto atribuye la competencia en materia de promoción de la accesibilidad a la Dirección de Vivienda, Suelo y Arquitectura de la Viceconsejería de Vivienda.

Horren ondorioz, beharrezkotzat jotzen da diruz lagundutako igogailu guztietan nahitaez instalatu beharreko informazio-plakaren eredua eguneratzea, deialdiaren II. eranskinean ezarritakoa, lehengo logoa ordeztuz eta dirulaguntza araubide honetarako eskumena duen egungo sailaren logoa erabiliko da: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

Deialdiaren onuradun diren eta deialdiaren babesean igogailuak egiten dituzten guztiei instalatu beharreko plakaren eredua helarazteko, II. Eranskina eguneratua erantsi da:


Por todo ello, se considera necesario actualizar el modelo de placa informativa de obligada instalación en todos los ascensores subvencionados, establecido en el Anexo II de la convocatoria, sustituyendo el logo existente por el del actual Departamento competente para este régimen de ayudas: el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Con objeto de trasladar a todas las personas beneficiarias de la citada convocatoria que ejecuten ascensores al amparo de la misma, el modelo de placa a instalar, se adjunta el siguiente Anexo II actualizado:

Vitoria-Gasteiz, 2021eko iraila

Vitoria-Gasteiz, a septiembre de 2021

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza / Dirección de Vivienda, Suelo y Arquitectura



*Irisgarritasuna hobetzeko **RENOVE Programa***

*Programa **RENOVE** mejora de la accesibilidad*

2020

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAREN IZENA

NOMBRE DEL PROYECTO SUBVENCIONADO

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZITZA  
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA  
Y TRANSPORTES